

Elkargokide agurgarriak,

Hautagaitza honen buru izateko ohorea dut, nere aldamenen zintzotasun, prestutasun, profesionaltasun, leialtasun eta konpromezu handiko pertsonaz osatutako lan talde bat dudala jabetuz.

Zorioneko eta harro sentitzen naiz lan talde honekin proiektu hau elkarbanatzeko aukera izateagatik eta nigan jarritako konfidantza adierazi izana eskertzen diet. Zailtasunen aurrean sendo mantentzeko gai ez ezik, bidezkoa uste dutenaren alde ere borrokatzeko gai direla ziur naiz.

Hautagaitza honetatik agurtzen zaituztegu eta Gipuzkoako Psikologiaren Elkargoaren zerbitzutara jartzen gara, Elkargoa elkargokide denon etxea izatea lortzearen helburuarekin. Profesionaltasuna eta gertutasuna bultzatuz eta ezagutzak elkar trukatzuz.

Zortzi psikologoaz osaturiko talde kohesionatua gara, urteetan zehar elkar ezagutu garen kideak, gehiengoak amankomunean dugu larrialdien sailaren partaide izatearena, baina orientabide profesional ezberdineko talde anitza gara. Oraingoan ere, proiektu berri honen ilusioak bateratzen gaituena.

Gure lan egiteko moduan elkarrizketari eta proposamenei atea irekitzea lehenetsiko dugu, ahalik eta modu arduratsuenen irtenbideak bilatzen saiatuz, harmena adieraziz, aukerak hausnartuz, baloratuz eta ahalik eta azkarren zuen eskakizunei erantzuna ematen saiatzea helburu izanez. Gainontzekoen denboraren errespetua gure araua izango da.

Bestetik ere, adierazi nahi dizuegu elkargokideen babesa eta laguntza gure lehentasunetan ipini nahi dugula. Hau areagotzeko baliabideak ezarri nahiko genituzke.

Gure inguruan ikusten dugu, psikologiaren lanbidea modu handi batean koltsulta pribatuetan burutzen dala, eta honek ondorioz, nolabaiteko bakardadera bultzatzen gaitzakeela bertako profesionalen. Beraz, Elkargotik langileen arteko topaketak bultzatu nahi ditugu, denon artean bizipenak eta ezagutzak elkarbanatu ahal ditzagun, profesionalki prozesua aberasgarria izatearen helburuarekin.

Elkargoa hein batean ere herritartasunari zuzendua egon behar denaren tresna dela uste dugu, bertatik psikologoengatik inguruko informazioa eskeini, intrusismoaren kontra lan egin, gizarteari jakinariziz psikologoengatik zereginak eta lan eremua.

Ziurrenik, zuetariko askok ez gaituzue ezagutzen, beraz, aurkezpen honen bidez zuengana gerturatu nahi izan dugu, proiektu berri honetan gure ibilbidea zein izatea nahi dugun gainetik eta modu oso laburrean adieraziz.

Gipuzkoako Psikologia Elkargo Ofiziala, elkargokide denoi dagokigun erakundea izanik, zuen eskubidea da aukeratu ahal izatea datorren lau urteetan zehar zein kudeaketa eredu nahi duzuen. Beraz, horregatik animatzen zaituztegu bozkatu dezazuen, nahiz eta gure hautagaitza ez aukeratu. Baina bozkatzea denon eskubidea da, erabili dezagun.

Aukeratua ateratzen den hautagaitzak, ilusioz eta helburuz beteriko lan garrantzitsu bat izango du datorren urteetara begira. Une zailak ere bistarazi beharko ditu, baina beti ere profesionaltasuna bermatuz erantzun egokiak bilatzea izango da asmoa.

Azkenik, eskeini diguzuen denbora eskertu nahi dizuegu eta berriz ere, bozkatzera joan zaitezten animatzen zaituztegu.

Besterik gabe, adeitasunez agurtzen gara Sonja, Cristina, Amparo, Lara, Yolanda, Uxue, Mainer eta Cristina.

Oharra: gure hautagaitzaren helburuak eta lan taldearen kurrikuluma atxikitzen dizuegu gehiago ezagutu gaitzazuen.